



AZPEITIA 41. EUSKAL  
**ANTZERKI  
TOPAKETAK**

AZPEITIA

**41. EUSKAL  
ANTZERKI  
TOPAKETAK**

2023ko  
udazkena



SARRERAK ETA INFORMAZIO GEHIAGO



[WWW.ANTZERKITOPAKETAK.EUS](http://WWW.ANTZERKITOPAKETAK.EUS)



### **AITOR LARRAÑAGA**

Kultura batzordeburua

Urte berezia izan zen iazkoa Euskal Antzerki Topaketentzat. 40. urteurrenaren harira, iraganera begiratu, eta orain arte egindako lana gogoratu, aitortu eta eskertu genuen. 41. aldi honetan, berriz, aurrera begira jarri gara, biharko antzerkigileei begira, eta protagonismo berezia eman nahi izan diogu gaztetxoan antzerkiari, herriz herriko antzerki taldeak sustatzeko gure aletxoak jarritz.

Azpeitiko Udalak euskarazko antzerkiarekiko duen konpromisoaren erakusle argiena dira topaketak, baina hilabeteko egitarau bat prestatzeaz haratago doa borondate hori. Dabilen harriari goroldiorik ez zaiola ateratzen jakitun, ahalegintzen gara mugimendua sortzen, bultza egiten. Elkarlanean ere sinesten dugu, eta elkarlan horren fruitu dira Kulturaz kooperatibarekin batera sustatzen ditugun antzerki sormen egonaldiak, gaztetxoan antzerki tailerrak, mediazio eta sentsibilizazio saioak... Ilusio berezia egin digu Antzerki Sormen Laborategia sortu berri dela jakiteak ere.

Hilabete ederra dugu aurretik, Euskal konpainiarik ezagunenena, talde amateurren nahiz lehen urratsak egiten ari diren gazteen lanak ikusi ahal izango ditugu Soreasun, Dinamoan eta kalean. Dozena bat emanaldi baino gehiago guztira. Eta Euskal Antzerki Topaketen esentziari eutsiz, noski, denak euskaraz. Goza dezagun!



AZPEITIA 41. EUSKAL  
**ANTZERKI  
TOPAKETAK**



## SALBE, PUBLIKOA GOAZ ANTZERKI TALDEA

AZAROAK 2, OSTEGUNA  
19:00ETAN,  
DINAMOA SORMEN GUNEAN  
HELDUENTZAT

## HONDAMENDIA ARTEDRAMA

AZAROAK 3, OSTIRALA  
19:00ETAN,  
SOREASU ANTZOKIAN  
HELDUENTZAT

AZPEITIA 41. EUSKAL  
ANTZERKI  
TOPAKETAK

### FITXA ARTISTIKOA

- **Zuzendaritza:** Erika Olaizola
- **Aktoreak:** Josu Iriondo, Amaia Arotzena, Joseba Eskudero, Mattin Urbieta, Irati Baroja, Pili Litago
- **Argiztapena:** Karlos Larramendi
- **Soinua:** Jagoba Egaña
- **Diseinu grafikoa:** Mayi Martiarena
- **Konpainia:** Goaz Antzerki Taldea



### FITXA ARTISTIKOA


- **Zuzendaria:** Ximun Fuchs
- **Idazlea:** Harkaitz Cano
- **Aktoreak:** Ander Lipus, Maite Larburu, Manex Fuchs, Ruth Guimerà, Eneko Gil, Ane Sagüés eta Jon Ander Urresti
- **Bideoa:** Maialen Belaustegi
- **Koreografia:** Philippe Ducou
- **Musika:** Maite Larburu, Asier Ituarte
- **Eszenografia:** Fran Dussourd
- **Jantziak:** Xabier Mujika
- **Argiztapen diseinua:** David Bernués
- **Soinu diseinua:** Philippe Barandiaran
- **Teknika:** Ieltxu Ostolaza
- **Teaserra:** Eñaut Castagnet
- **Argazkiak:** Ainhoa Resano
- **Irudia:** Unai Bergara
- **Diseinu grafikoa:** Roberto Quintana
- **Ekoizpena:** Iasone Parada, Mikel Unamunzaga, Argi Perurena
- **Mediazioa:** Arantxa Hirigoyen
- **Banaketa:** Irantzu Azpeitia

### SINOPSISIA

Ikusle maitagarria...  
Hau irakurtzen ari bazara  
zuretzako da gonbidapena.  
Etorri eta murgildu aktoreon  
unibertsoan. Modu horretan  
bakarrik jakingo duzu zergaitik  
zaitugun hain maitea,  
hain beharrezkoa, hain...

### SINOPSISIA

“Ez da deus berririk eta ez da deus originalik.  
Geure lanak eta ezinak ez dira aurreko belaunaldien lanen eta ezinen gainean eraikitzen, haiengandik jaso ditugun hondakinen gainean baizik: haien aurreran eta zaborraren gainean.  
Geure lanak eta ezinak, badira zerbaite, beraz, etorkizuneko zabor geruza bilakatu aurretik? Ezer izatekotan, zer?  
Maite dugu Grezia eta maite dugu Ariadnaren mitoa. Hariari jarraitzea labirintoan, alegia. Baina akaso, hariari jarraitzea baino hobe genuke geure zaborrari jarraitzea inora —geure burua ezagutzera— iritsi nahi badugu noizbait.”



## HIGA EROMEN PRODUKZIOAK

AZAROAK 5, IGANDEA  
HELDUENTZAT  
19:00ETAN,  
SOREASU ANTZOKIAN

## IDENTITARTEAK GILKIXARO TALDEA

AZAROAK 9, OSTEGUNA  
19:00ETAN, DINAMOA  
SORMEN GUNEAN  
HELDUENTZAT

AZPEITIA 41. EUSKAL  
ANTZERKI  
TOPAKETAK

### FITXA ARTISTIKOA

- **Testuaren dramaturgia eta zuzendatritza:** Amancay Gaztañaga
- **Aktoreak:** Zestoako Antzerki Eskolako 26 ikasle.
- **Jantziak:** Eromen produkzioak.
- **Eszenografia:** Eromen produkzioak.
- **Argi diseinua:** Uhinak.



### SINOPSISIA

Bada norbait areto honetan klasiko bat irakurtzen hasi eta lehenengo orritik pasa ez dena? Bada norbait hemen, klasiko bat ulertu ez, eta zertaz doan jakiteko googletzen ibili dena? Inoiz esan duzu: Noski! Irakurrita daukat... ze testu ederrak dituen.... eta ez zenekien zertaz ari zinen ere? Hau bada zure kasua, ongi etorri, toki egokian zaude.

Zertarako taularatu klasikoak? Arriagako programazioa betetzeaz gain, ba ote dute beste baliorik? Edo ahaztuak izanez gero, ez litzaiguke ezer pasako antzerkizaleoi. Nork ez ditu Romeo eta Julieta ezagutzen, edo... Macbeth-en emaztea zena... Lisitratari mila abesti moderno eskeini zaizkio naiz eta bere autorea, Aristofanes, ezezagunagoa izan...

Guk hiru klasiko hartu eta traizionatu egin ditugu. Errespetu eta maitasun handiz traizionatu ditugu, bai.

Tradizioari traizio egin diogu eta zuek gaur, gure konplize izango zarete.



### FITXA ARTISTIKOA

- **Testua:** Lutxo Egia
- **Dramaturgia eta zuzendaritza:** Gilkitxaro
- **Interpreteak:** Ane Zabala, Galder Perez, Aitor García de Vicuña (Gartxito)
- **Argiztapena:** Ruben Martínez Blanco
- **Soinu diseinua:** Aitor García de Vicuña (Gartxito)
- **Jantziteria eta elementu eszenografikoak:** Ramona Bilbao Izagirre
- **Kartela:** Gontzal Gutierrez

### SINOPSISIA

IdentitarTEAK antzezlana Gilkitxaro taldearen lan berria da. 25 urte bete ostean haien buruari nor eta zer diren galdetzen diote oraindik. Beti ere komediatik eta jolasetik planteatzen dituzte zalantzak. Beti ere ikuslearengandik gertu eta kabareta laztantzen botatzen dituzte galderak.

Ane Zabala eta Galder Perez Aitor García de Vicuña (Gartxito) musikariarekin batera agertuko dira taula gainean. Identitateen gaineko galdera berri eta zaharrekin jolasten jarraitzeko asmotan agertuko dira, haien identitateak eraiki eta deseraikitzea jolastuko dira testua, musika eta performancea nahasten dituen muntaian. Lutxo Egia idazlearen testua da abiapuntua.



## ITSAS BEHERA PEZ LIMBO

AZAROAK 10, OSTIRALA  
19:00ETAN,  
SOREASU ANTZOKIAN  
HELDUENTZAT

## TROIA KAMIKAZ KOLEKTIBOA

AZAROAK 11, LARUNBATA  
KALE ANTZERKIA  
12:30ETAN,  
SOREASUKO PLAZAN  
DENENTZAT

AZPEITIA 41. EUSKAL  
ANTZERKI  
TOPAKETAK

### FITXA ARTISTIKOA

- **Zuzendaria:** Espe López
- **Aktoreak:**  
Unai Lopez de Armentia eta  
Javier Barandiaran
- **Argiztapen diseinua:** Javi Ulla
- **Argazkiak:** Asier Bastida
- **Bideoa:** Beñat Fontaneda
- **Jantziak:** Marina Suarez Ortiz de Zárate
- **Esenografia:** Eskenagorri
- **Ekoizpena:** Pez limbo



### SINOPSISIA

Bi gizabanako beraiek eraikitako mundu batean bizi dira. Unibertsoak planik ez duela sinetsita, egotea erabakitzen dute, ondo eta elkarrekin, egonean. Bizitza konplexua dela sentitzen dute, ez duela merezi borrokatzea eta, aldi berean, burdinazko borondatearekin bizitzeko beharra dute. Kontraesan horrek batzuetan harriduran kokatzen ditu eta beste batzuetan neke existentzialean. Beren ekintzek ez dute xederik baina zentzua ematen saiatzen dira.

Ororen gainera, existitzeko beharraz hitz egiten digun komedia da, kosmosa eta lurraren artean, malenkonia eta kabaretaren artean, materia ilunaren eta karaokearen artean toki bat aurkitzeko beharraz ari dena. Jainko eta munstroen artean. Azken aldiz errautsetatik birsortzen diren bi fenix-hegazi. Bi gizon beren suizida sena zapaltzen beren edukazioagatik. Bi aktore kezkatuta dauden plantak egiten.

*Itsas behera.* Etxean tanga, txankleta eta lumazko berokiaren ibiltzearen existentzialismoa.

### FITXA ARTISTIKOA

- **Zuzendaritza:** Espe Lopez, Erika Olaizola, Amancay Gaztañaga eta Iraia Elias
- **Antzezleak:** Erika Olaizola, Amancay Gaztañaga eta Iraia Elias
- **Testua:** Erika Olaizola, Amancay Gaztañaga eta Iraia Elias
- **Narratzailea:** Jesus Eguzkitza
- **Soinu banda:** Alejo Orbegozo
- **Teknika:** Imanol Garcia
- **Diseinua eta argazkiak:** Holy Fire Studio
- **Jantziak:** Kamikaz Kolektiboa
- **Makillaia:** Xanti Agirrezabala



### SINOPSISIA

Herrian objektu misteriosu bat agertu da. Arriskutsua izan daitekeelakoan hiru superheroi hauek deitu dituzte herria salbatzeko. Beraien botere guztiak erabiliko dituzte misioa aurrera eramateko eta herritarren laguntza ezinbestekoa da. Herrian sortu den tentsioa handia da eta edozein momentutan eztanda egin dezake.



## LAGUN BELTZ ASKO ADOS TEATROA

AZAROAK 12, IGANDEA  
19:00ETAN,  
SOREASU ANTZOKIAN  
HELDUENTZAT

### FITXA ARTISTIKOA

- **Testua eta zuzendaritza:** Garbi Losada
- **Antzezleak:** Ramón Ibarra, Asier Hormaza eta Asier Sota
- **Eszenografia eta jantziak:** Ikerne Gimenez
- **Argiak:** Xabier Lozano
- **Musika:** Javier Asín



### SINOPSISIA

Hemen ez gara arrazistak. Hemen denok ditugu lagun beltz asko. Eta gauza asko entzuten da, gero eta delinkuentzia gehiago dagoela, jende horrek lana kenduko digula entzuten da. Berandu da. Kanean ez dabil inor. Ixtear doan taberna arrunt batean gertatzen da istorioa. Barruan, tabernako jabea eta bere lagun hoberena azkena hartzen ari dira. Oso lagun dirudite baina sekretuak eta traizioak ezkututzen dizkiote batak besteari. Bat-batean, galduta dagoen migratzaile batek atea jotzen du eta mugikorra kargatzen uztea eskatzen die, Londresen dagoen alabarekin hitz egin ahal izateko. Mugikorrik gabe ezin du ez alabarekin hitz egin ezta bere bidaiarekin jarraitu ere.

Gaua luzatzen da eta "bertakoek" hain urrunetik datorrenari lagundu egin nahi diote nola edo hala. Ezin elkar ulertu ordea. Istorio hau, taberna batera sartu eta, nahigabean, bertako anfitrioiaren isilpeko sekretuak nahastearen ondorio da.

Gauaren bukaeran, gorpu geldo bat tabernako zoruan. Poliziari kontatuko dioten bertsioa, berriz, klasikoa: ez zuen paperik, indarrean sartu zen, lapurtu egin nahi zien. Beraiek lagundu besterik ez zuten egin nahi baina arazoa da ez ziotela ezertxo ere ulertzen. Agian zerbait ulertu izan balioke, han ez zen ezer gertatu izango.



## ERAKUSKETA ETA BISITA GIDATUAK IKASTETXEEKIN TXOTXONGILOEKIN JOLASEAN CORRADO MASACCI

AZAROAK 1-15

ASTELEHENETIK OSTIRALERA 18:00-20:00

ASTEBURU ETA JAI EGUNETAN 12:00-14:00

BETHARRAM ERAKUSKETA ARETOAN

### TXOTXONGILOEKIN JOLASEAN

Erakusketa didaktiko hau batez ere, haur eta familientzako da. Honen ezaugarria da autoreak ikusleekin harreman zuzena duela, bisitaldi gidatuei esker. Azken batean proposamen "bizia" da. Bisitaldi gidatuetan egileak harreman zuzena du ikusleekin, ikastetxeetako neska mutikoak normalki. Erakusketan ikusten ari direna azaltzeaz gain, istorioak kontatzen dira txotxongiloak erabiliz.

Hainbat pertsonaia ikusiko ditugu: gorila patinatzailea, dragoia, zirkoko pertsonaiak, robotak, txotxongilo jostailuak...baita txotxongiloak egiteko sorkuntza-prozesua eta manipulazio-teknikak ere.

Erakusketaren iraunpena bi astetako izango da, Azpeitiako Euskal Antzerki Topaketan barruan.



# ESKOLA ANTZERKIA



## AZAROAK 13, ASTELEHENA

**ERREZILGO SAN MARTIN HERRI ESKOLA  
- IPUIN KLASIKOAK BERTSIONATUTA  
(HIRU TXERRITXOAK, TXANOGORRITXO)**

11:00ETAN, SOREASUKO ANTZOKIAN

**AZPEITIKO GAZTETXOEN ANTZERKI TALDEAK  
- ZOO-LOGIKOA  
- AMAIERAREN HASIERA**

11:00ETAN, SOREASUKO ANTZOKIAN

ANTZEZLEEN MAILA: LH5 ETA LH6

NORENTZAT: LH2-LH6 TARTEAN

## AZAROAK 14, ASTEARTEA

**AZPEITIKO GAZTETXOEN ANTZERKI TALDEAK  
- SUA BARNETEGIAN  
- FILOTIMO (PANDORAREN KUTXA)**

11:00ETAN, SOREASUKO ANTZOKIAN

ANTZEZLEEN MAILA: 10-12 URTE BITARTEKOAK

NORENTZAT: LH5 ETA 6

## AZAROAK 15, ASTEAZKENA

**BERMEOKO SAGRADO CORAZON IKASTETXEA  
- 3.ZIKLORA HELDU GARA  
- IRAKASLE GAIZTOAK**

11:00ETAN, SOREASUKO ANTZOKIAN

ANTZEZLEEN MAILA: LH6

NORENTZAT: LH3-LH6 TARTEAN



# ESKOLA ANTZERKIA

AZAROAK 16, OSTEGUNA

AMEZKETAKO ZUMADI ESKOLA  
– “EDURNE ZURI”  
IPUIN MUSIKATUA.

– PERNANDO  
AMEZKETARRAREN  
PASADIZO BATI  
BURUZKO  
BERTSO ANTZERKIA.

– ERRETOREAREN  
TXERRIA” ANTZEZLANA.

11:00ETAN, SOREASUKO ANTZOKIAN

ANTZEZLEEN MAILA: LH3-LH6  
NORENTZAT: LHI-LH6

## PIZTU! EMAKUMEON ENERGIA EIDABE ANTZERKIA

AZAROAK 17, OSTIRALA  
11:00ETAN, SOREASU ANTZOKIAN

### FITXA ARTISTIKOA

- Gidoia eta Zuzendaritza: Imanol Ituiño
- Antzezleak: Tania Fornieles eta Ana Garcia
- Ilustrazioa: Marta Dominguez
- Diseinu aholkularia: BLK Komunikazioa
- Abestiak: Ez da berriz gertatuko
- Musika: Mikel Inun
- Hitzak: Eli Carrascosa *Piztu*
- Musika: Mikel Inun
- Hitzak: Bihotz Gorospe
- Argazkiak: ilara
- Jantziak: La Rueca, eidabe
- Eszenografia: Maria Casanueva
- Ekoizpena: eidabe

### SINOPSISIA

Zelakoa litzateke mundu bat benetako berdintasunarekin? Desoreka eta injustiziaz betetako mundu ilunean argia piztuko bagenu? Guztion energia erabiliz denontzat aukera berdinak bermatzen dituen mundu bat asmatuko bagenu? Eta, bapatean, zientzialari batek asmatuko balu ezjakintasun guztiekin bukatzeko makina miraritsua? Horrek berdintasuna ahalbideratuko luke?

Eta asmatzailea emakumea balitz? Ustezko zientzia kongresu zoro eta dibertigarri honetan bi Antzezleek dena buruz gora jarriko dute eta emakume zientzialarien historian zehar nabigatuko dugu. Marie Curie ardatz eta gidari izanik, emakumeak zientzian izandako benetako pisuaz jabetuko gara eta hainbat esperimendu egingo ditugu ere. Eta bidaia honen ondoren, guztion barnean ideia berriak piztuz, makina horrek barnean gordetzen duen sekretuaz jabetuko gara beharbada...







## (H)ONDOKO GELA LES BOBE BOBE ELKARTEA

AZAROAK 16, OSTEGUNA  
19:00ETAN, DINAMOA  
SORMEN GUNEAN  
HELDUENTZAT

## ARRAINA BIHOTZEAN MAR-MAR TEATROA

AZAROAK 18, LARUNBATA  
17:00ETAN,  
SOREASU ANTZOKIAN  
FAMILIENTZAT

AZPEITIA 41. EUSKAL  
ANTZERKI  
TOPAKETAK

### FITXA ARTISTIKOA

- **Zuzendaritza:** Jasón Guerra Arregui
- **Antzezleak:** Ane Gebara, Josune Vélez de Mendizabal
- **Testuak:** Sormen kolektiboa
- **Kanpo begirada:** Marina Suárez Ortiz de Zarate
- **Ekoizpena:** Les Bobè Bobé



### FITXA ARTISTIKOA

- **Zuzendaria:** Mar-Mar Teatro, Getari Etxegarai
- **Jatorrizko ideia eta poemak:** Leire Bilbao
- **Dramaturgia:** Mar-Mar Teatro
- **Txotxongiloak eta atrezzoak:** Javi Tirado
- **Jantziak:** Noemi Loiti
- **Diseinu Grafikoa:** Ane Pikaza
- **Antzezleak:** Irene Hernando, Aritza Rodriguez, eta Maitane Serrano
- **Musika:** Unai Laso
- **Soinu espazioa:** Igor Iglesias
- **Argiztapen diseinua:** Maitane Serrano
- **Teknikariak:** Antxon Unzaga, Maitane Serrano eta Igor Iglesias
- **Argazkiak:** Mario Lezaun
- **Ekoizpena:** Mar-Mar Teatro

### SINOPSISIA

Bi detektibe. Ezohiko hildako bat. Aurrez H hizkia duen ondoko gela, alboko gela sakona. Oso sakona, ikerketa inozo honen erara. Ezer ez da dirudiena, eta baldin bada ez dirudiena da. Ardi txikia, beti bildots. Baita zera ere! Beltz guztiak ez dira ikatz. Eta kontua da dena halabeharrez aldatzen dela baina denek uko egiten diotela aldaletari. Eta hilketa ez da konpontzen, desegin baizik, esku artean ihes egiten die. Pieza bakar bat ere ez dator bat alde honetan, pieza guztiak ondoko gelan sartzen direlako. Lasterketa biziak. Omikron fasean ustegabeko topaketak, esana da erraz eta egina garratz, nora jo ez dakien ikerketa, konponezina den konplota. Fenomeno paranormalak, normalak ez direnentzat eta guztiz anormalak direnentzat, logika kar tesiari ari astindua. Komedia beltz - mex eta zentzugabea, txepetxak adina bururik ez ukan, alegia, les Bobè Bobé estilokoa.

### SINOPSISIA

Martik ez daki non bizi diren beldurrak, hortaz lasai bizi da kresal usaina duen herri polit batean. Aita marinela du eta portuan, bere zain dagoen egun gris batean, ekaitz batek uretara jaurtitzen du. Nahitaezko bidaiaria hasiko du itsas hondoa zehar, horretarako arrainen eta beldurren hizkuntza ikasi behar badu ere.



# BADON\*

## 2023-24 KORRIKA KULTURALA

### AURRE ESTREINALDIA

AZAROAK 23, OSTEGUNA  
19:00ETAN, SOREASU ANTZOKIAN

HELDUENTZAT

**TOPAKETETAKO SARI BANAKETA**

### FITXA ARTISTIKOA

- **Antzezleak:** Ainara Gurrutxaga, Oihana Vesga, Xanti Agirrezabala, Ines Osinaga eta Marina Suarez
- **Zuzeneko musika:** Ines Osinaga
- **Testuak:** Talde sortzailea
- **Zuzendaritza:** Marina Suarez Ortiz de Zarate
- **Musika konposaketa:** Ines Osinaga
- **Bideo sorkuntza zuzenean:** Itziar Garaluce
- **Kanpo Begirada:** Edurne Azkarate
- **Argi diseinua:** Elena García
- **Soinu produkzioa:** Eneritz Furyak
- **Eszenografia:** Sortzaile taldea
- **Jantziak:** Julene Gregorio
- **Argi teknikaria biran:** Elena Garcia
- **Komunikazioa:** Xerra Estudioa
- **Ekoizpena:** Mauriziak ez dau inor hil eta AEK
- **Banaketa:** Amaia Castañeda
- **Ekoizpen teknika:** Ines Osinaga
- **Ekoizpen teknikoko laguntzailea:** Amaia Castañeda
- **Testu aholkularitza:** Uxue Alberdi
- **Kopla zaindaria:** Miren Amuriza
- **Narrazioak eta ahotsak:** Miren Gaztañaga
- **Soinu Banda:** Maite Arroitiajaregi
- **Aholkularitza eta kontrastea:** Lorea Argarate, Tripak, Dejabu



### SINOPSISIA

Proposamenaren muinean hibridazioa dago, nahasketa, jakeoa. Dela erreferentzien aldetik, dela praktika artistikoen aldetik. Sorkuntza prozesuan lanean jardun dute antzele, dantzari, musikari, bideo sortzaile eta diseinatzaile grafikoek, besteen artean.

Badon, gure buruak berpentsatzeko-berreraikitze ariketa da, baina batez ere, eta denaren gainetik, gure buruak ospatzeko **FESTA BAT**.

Badon-ek, Korrika kulturalaren sorkuntza beka jaso du eta Korrika Kulturalaren baitan eskainiko ditu lehen emanaldiak. Ondoren Mauriziak ez dau inor hil kooperatibak hartuko du banaketaren ardura.

# topic.



### ERAKUSKETA

AZAROAREN 3TIK 18RA  
SOREASU ANTZOKIKO  
SARRERAN  
IKUSKIZUNAK DAUDEN  
EGUNETAN IKUSGAI.

Tolosako herria duela 40 urte baino gehiagotik dago txotxongiloenarteari lotuta. Titirijai (1982) Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Jaialdiaren ondorioz, ondare hori zaintzeko eta zabaltzeko beharra sortu zen.

TOPICeko ateak 2009an ireki ziren, eta, horrela, Txotxongiloen Nazioarteko Zentro bihurtu zen.

Bere inguruan konplizitateak bilatzeko asmoarekin, TOPIC-eko zati bat bere museotik aterarazten du eta oraingoan, Soreasu Antzokira bere bildumaren sorta txiki bat eramaten du Azpeitiko Topaketetako publikoarekin partekatzen.




### TXOTXONGILO SORKUNTZA TAILERRA (6-12 URTE BITARTEKO GAZTETXOENTZAT)

AZAROAK 12, IGANDEA  
11:00ETAN, DINAMOA SORMEN  
GUNEAN. DOAKOA DA BAINA  
AURREZ SARRERA HARTUTA.

TOPIC-ek tailer bat eskainiko du etxeko gaztetxoek txotxongiloaren artean murgiltzeko. Txotxongilo mota desberdinak sortuko ditugu modu erraz eta dibertigarri batean eta ahotsa zein mugimenduen garrantzia landuko ditugu.

**Kulturaz Kultur Kooperatibaren sormen egonaldietan hautatutako antzezlanak.**



AZPEITIA 41. EUSKAL  
**ANTZERKI  
TOPAKETAK**



[WWW.ANTZERKITOPAKETAK.EUS](http://WWW.ANTZERKITOPAKETAK.EUS)

ANTOLATZAILEA:



LAGUNTZAILEAK:

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputazioa Foroa  
de Gipuzkoa



**Kulturaz**  
Azpeitiko Kultur Kooperatiba